

Indarkeria matxistaren aurrean protokoloa

ehbildu

0. Atarikoa

Indarkeria matxista oso arazo larria da gure gizartean. Análisi feministak azpimarratzen du sexu-generoa sistemaren egiturazko desparekotasunetan duela jatorria; izan ere, sistema horrek gizarte bitar eta patriarkalari eusten dio, bote-re-harreman sakonek markatua, eta maskulinoa eta heterosexuala indarkeriaz nagusitzen dira egunerokoan, bizitzaren esparru eta alderdi guztietan.

Gure Estatutuen 3. artikulua xedatzen duen bezala, EH Bilduren oinarri ideologikoetako bat da feminismoa. Horrenbestez, zeharkako helburua da EH Bildu subjektu politiko feminista bihurtzea, erakundea osatzen duten egitura eta pertsona guztiak eragiten diena, eta hainbat tresna eta prozesuren bidez landu behar da, hala nola Barne Plan Feminista, prestakuntza prozesuak feminismoan edo Indarkeria Matxistaren aurreko barne-protokoloa. Prozesu horiek guztiak lotuta daude eta helburu berari erantzuten diote: EH Bildu erakunde feminista bihurtzea.

Aipagarria da, halaber, EH Bilduko langileek, arduradun politikoek eta kargu publikoek Kode Etikoa sinatzearekin euren gain hartu duten konpromisoa, besteak beste, emakumeen eskubide guztiak errespetatzearen alde lan egiteko beharra jasotzen baitu, bai eta diskriminazio-egoera ororen aurka borrokatzeko konpromisoa ere, emakumeen eta pertsona disidente sexu-generikoen aurkako indarkeria matxistaren aurreko konpromisoa azpimarratuz.

EH Bildu emakume eta pertsona disidente sexu-generiko guztientzako espazio libre eta segurua izan dadin lortzeko, tresna praktikoa eta eraginkorra behar dugu, erakunde gisa modu koherentean erantzun ahal izateko indarkeria-kasuen aurrean. Era berean, ikuspegi feminista prebentiboa, hezitzailea eta erreparatzailea izan behar dugu, bai erasoak jasan duen pertsonarekiko, bai erasoak egin duenarekiko, bai gure komunitatearekiko, ulertuta EH Bildu osatzen dugun pertsonok eta gure ekintza politikoa egiteko erabiltzen ditugun espazio eta egitura kolektiboak osatzen dutela komunitate hori. Kasu bakoitzerako egokiak diren prestakuntza-neurri eta neurri erreparatzaileen bidez txertatu behar da ikuspegi hori, eta, hori bermatzeko, aditu feministen aholkularitza izango dugu behar denean.

Indarkeria matxistaren errealitatea konplexua da, askotarikoa, eta hurbilketa berezia eskatzen du kasu bakoitzak. Horregatik, funtsezkoa da haren kudeaketan zuzenean inplikaturik dauden egiturak eta pertsonak berriaz prestatzea. Gainera, protokolo hori ez da tresna itxia; aitzitik, etengabe berrikusi eta baloratu behar da, indarkeria matxistari dagokionez feminismoan izaten diren esperientziarekin eta aurrerapenekin aberasteko.

EH Bildu erakunde gaztea da oraindik, etengabe eraldatzen ari dena, baina hasiera-hasieratik feminismoarekin konprometua, batez ere EH Bilduko kide diren feminista askoren funtsezko lanari esker, konpromiso sendo hori bultzatzeko. Protokolo honekin bide horretan urratsak egiten jarraituko dugu.

1. Helburuak, filosofia, aplikazio-eremua, printzipioak eta testuingurua

Helburuak

EH Bildu feminista eraikitze bide horretan aurrera egiteko, protokolo hau beste tresna bat da, eta honako helburu hauek ditu:

- EH Bildurekin lotutako pertsonak inplikatzeko dituzten indarkeria matxistaren kasu guztiak identifikatzea eta behar bezala erantzutea.
- Indarkeria matxistaren kausak eta ondorioak ezagutzeko prozesua ikuspegi feministatik identifikatzea eta prozesu horretan laguntzea.
- Indarkeria matxistaren prebentzioan, erreparazioan eta ez errepikatzeko bermean aurrera egitea, ekintza espezifiko bidez akonpainamenduan, prestakuntzan, sentsibilizazioan eta erreparazioan, betiere ikuspegi feministatik begiratuta.
- Indarkeria matxista jasan duten pertsonen akonpainatzea, haien autonomia eta agentzia aintzatetsiz.

Filosofia

Erakunde feminista eraikitze bide horretan aurrera egiteko konpromisoan, indarkeria matxistari ikuspegi kolektibo, prebentibo, erreparatzaile eta eraldatzaile aurre egiteko konpromisoa hartzen du EH Bildu: pertsona guztiei eragiten dien arazo kolektibo gisa ulertzen dugu indarkeria matxista. Arazo hori erabat errotua dago gure gizarte-erakuntzan eta hurbilketa integralak eskatzen ditu. Hurbilketa horietan hausnarketa eta kontzientzia indibidual eta kolektiboa landu behar dira, eta botere-harremanen eta genero-harremanen eraikuntza eraldatu duten hezkuntza-prozesuak proposatu behar dira, harreman horien ondorioak ezagutu eta zuzendu ahal izateko. Gure erakundea ikuspegi horietatik begiratuta aldatzeko, hurbilketa horrek aintzat hartu behar ditu eraso jasan duen pertsona, hura erdian jarrita, eraso egin duen pertsona eta EH Bildu osatzen dugun pertsonen komunitatea.

Aplikazio-eremua

Protokolo hau aplikatuko zaie afiliatuei (bilkideak), liberatuei (kontratatuak), kargu organikoari, kargu publikoari eta instituzioetako izendapen libreko postuetan dauden pertsonen, eta espazio fisiko zein birtualetan gertatzen diren erasoei aplikatuko zaie.

Erasoa egin duen bilkideari EH Bilduren Estatutuetan jasotakoaren arabera garatu eta onartu beharko den diziplina-
-araubidea aplikatuko zaio. Liberatuei, kargu organikoari edo kargu publikoari eta izendapen libreko postuetan dauden
pertsonei dagokienez, sinatu behar duten Kode Etikoa aplikatuko da.

Printzipioak eta aplikazio-bermeak

- *Errespetua eta babesa*

Ikuspuntu erreparatzailetik begiratuta, bai erasoa jasan duen pertsonari, bai EH Bilduren komunitateari (ulertuta era-
kundera osatzen dugun pertsonok eta gure ekintza politikoa egiteko erabiltzen ditugun espazio eta egitura kolektiboek
osatzen dutela komunitate hori). Une oro hartu beharko dira kontuan erasoa jasan duen pertsonaren egoera eta segur-
tasun-premiak, bai eta gure komunitatean duen eragina aztertzeko eta ekintza kolektibo erreparatzaileak eta hezitzaileak
leak planteatzeko beharra ere.

Protokoloaren prozesuan parte hartzen duten pertsona guztiei protokoloaren edukien berri eman beharko zaie, eta
parte hartzeko baimena eman beharko dute.

- *Akonpainamendua eta erreparazioa*

Erasoa jasan duen pertsonari akonpainatzea lehentasuna izango da beti, eta berme guztiekin egin beharko da kasuak
kudeatzen hasten direnetik, eta, behar izanez gero, aditu feministen laguntza izango da horretarako.

Protokolo honen filosofiaren parte da, halaber, erasoa egin duen pertsonarekiko esku-hartzea. Halatan, ikuspuntu fe-
ministatik, zehapena/zigorra arazoaren zentroa edo gunea izatetik desplazatu egiten da eta biziki lan egiten da erasoa
erreparatzeko eta errepikatu ez dadin bermatzeko, ahal bada bederen.

- *Konfidentzialtasuna informazioaren kudeaketan*

Funtsezkoa da prozeduraren fase guztietan zehar jakarria izatea, eta ardura duten egiturek informazioa behar bezala
erabiltzea. Era berean, zer, noiz eta nola komunikatu funtsezkoa da, pertsonari eta komunitateari begira sentsibilizazio
eta erreparazioko lan egokia egiteko.

- *Arduraz eta azkar*

Arduraz eta azkar jardun beharko da, eragin negatiborik izan ez dadin.

- *Inpartzialtasuna eta kontraesana*

Audientzia inpartziala bermatuko da. Pertsona oro errespetuz tratatu beharko da, berdintasunari eta diskriminaziorik
ezari dagokienez.

- **Proportzionaltasuna**

Hartu beharreko neurriak gertaeren larritasunaren arabera definituko dira, eta kasu bakoitzean gertatzen diren inguruabarrekiko proportzionalak izango dira.

- **Erantzunkidetasuna**

Indarkeria matxista egiturazko arazoa da, EH Bildu osatzen duten pertsona guztiei dagokiena. Kudeaketan zerikusi zuzenagoa duten egitura espezifikoak badaude ere, guztiok dugu geure burua prestatzeko eta aktiboki lan egiteko ardura, gertatu diren kasu jakinak behar bezala konpontzeko ez ezik, indarkeria matxistarik gabeko kultura politiko, antolatzaile eta militante seguruan aurrera egiteko ere.

Indarkeria matxistaren testuingurua

Indarkeria matxista askotariko hainbat mekanismo bortitzez osatua dago, sexua/generoa/sexualitatea eskemari aurre egiten dioten pertsona desberdinek bazterketa, marjinazioa, arbuioa, patologizazioa eta abar jasaten dituztela ziurtatzeko erabiltzen direnak. Esparru horretan, emakumeek indarkeria jasaten dute, ez egiten duten horregatik, baizik eta direnagatik eta irudikatzen dutenagatik: emakumeen aurkako indarkeria matxistak emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanetan ditu sustraiak, eta egiturazko desberdintasunean oinarritua dago, eta, horri eusteko, halako mekanismo bortitz batzuk erabili behar dira emakumeen gorputzaren gain.

Emakume guztiek jasan badezakete ere indarkeria matxista, ez dute beti modu berean biziko, interseksionalitateak eraikitzen dituzten beste errealitate batzuek esku hartzen baitute, hala nola, adina, jatorria, egoera soziala, itxura fisikoa, egoera administratiboa, gaitasun funtzionalak eta intelektualak edo beste zenbait faktore, kolektibo batzuen kalteberatasuna areagotzen dutenak.

Gainera, sexuaren eta generoaren eskemei aurre egiten eta horiek hausten dituzten gorputz guztiek jasan dezakete indarkeria matxista kontrol-mekanismo gisa: intersex gorputzak, gorputz transgeneroak, homosexualak eta lesbikoak, tradizioz esleitu zaizkigun genero-eskemak hausten dituzten emakumeak eta gizonak..., gizarteko errealitate horiek beti egin diote aurre normaltasunaren parametro bilakatu den sexua/generoa/sexualitatea eskema patriarkal aldebakarreko eta aldaezinari.

Egiturazko indarkeria da, pertsonok zeharkatzen gaituena, eta alor askotatik dator, osatzen ditugun egituretatik, ditugun arauetatik, bizi garen espazioetatik eta bizitzako esparru eta sektore guztietatik: indarkeria legitimatzen eta naturalizatzen duten egiturak, arauak eta mekanismoak. Parte-hartze politikorako espazioak ere, gizartearen parte diren aldetik, indarkeriaren egiturei eusten dien sistema horren parte dira: horregatik, parte aktiboa izan behar dute indarkeriari aurre egiteko. Beraz, indarkeria matxistaren aurkako borroka zeharkako ikuspegiak behar ditu eta banakako, taldekako eta antolakuntzako berrikuspen-prozesu sakonak, alor guztietan.

2. Esku hartzeko prozesua

Protokolo hau arautzen duten printzipioak eta inplikaturako pertsonen eskubideak errespetatzeko berme gisa, pertsona guztiek eskubidea izango dute uneoro EH Bilduren Kontrol eta Berme Batzordera jotzeko, bilkideen eskubideak defendatu eta bermatzeko organoa baita.

Organo arduradunak

Gure helburuei eta filosofiari erantzungo dien esku-hartze prozesu egokia izateko, **Indarkeria Matxista Kudeaketa eta Jarraipenerako Taldea** sortuko da (aurrerantzean, Kudeaketa Taldea), Barne Antolaketako Zuzendaritzaren koordinaziopean, eta honako kide hauek izango ditu:

- Barne Antolaketako Zuzendaritza.
- Eraketa Arloa.
- Feminismo eta Sexu eta Genero Aniztasuneko Idazkaritza.

Gainera, eta kasua gertatu den herrialdearen arabera, herrialdeko Koordinazio Arloak parte hartu beharko du. Talde honetako kide izateko izendatutako pertsona guztiek indarkeria matxistari buruzko prestakuntza espezifikoa izan beharko dute. Interes-gatazka badago edo inplikaturako pertsonetikiko hurbiltasun handiegia badago, organo bereko beste batek ordeztu beharko du beti, eta indarkeria matxistari buruzko prestakuntza izan beharko du hark ere.

Era berean, esku-hartze prozesu bakoitzari behar bezalako akonpainamendua eta jarraipena egiteko, **Inplementazio Taldea** sortuko da. Talde hori ere Barne Antolaketako Zuzendaritzaren koordinaziopean egongo da, eta zuzendaritza horrek bi taldeen ekintza koordinatua bermatuko du. Zuzendaritza horrek, era berean, prozesu bakoitzaren arabera zehaztuko du EH Bilduko zein organok hartu behar duten parte prozesuan. Nolanahi ere, bermatu beharko da, organo bakoitzetik parte hartzen duten pertsonetako batek gutxienez baduela indarkeria matxistari buruzko prestakuntza.

Kudeaketa Taldeak eta Inplementazio Taldeak parekideak izan beharko dute. **Barne Antolaketako Zuzendaritza** arduratuko da indarkeria matxistaren kasuetan prozesuak koordinatzeaz eta haien jarraipena egiteaz, gidatzen gaituzten filosofiaren, printzipioen eta bermeen esparruan.

Edonola ere, EH Bilduren **Kontrol eta Berme Batzordera**, bilkideen eskubideak defendatzeko eta bermatzeko duen agindua betetz, protokolo honen aplikazioan inplikaturako edozein bilkidek babes-eskean jo ahalko du.

Gainera, indarkeria matxistan adituak diren **Adituen Sarea** sortuko da, EH Bilduko militante feministek eta EH Bildurengandik hurbil dauden pertsona adituek osatua, eta indarkeria matxistaren hainbat adierazpideri buruzko eza-gutzak izango ditu (sexu-indarkeria, adingabeak, pertsona disidente sexu-generikoen aurkako indarkeria, eremu digita-

la), bai eta biktimekiko akonpainamenduari buruzkoak ere. Feminismoen Idazkaritzak hala proposatzen duenean joko da sare horretara, eta, betiere, erasoja jasan duen pertsonari akonpainatzean eta kasuaren balorazioa egiten denean. Kontraste hori zerbitzu profesional eta ordaindutzat hartuko da, barne-baremoen arabera.

Prozesuaren faseak

Protokolo hau arautzen duten printzipioak eta bermeak betetze aldera, kasua jakinarazten denetik onartutako neurriak abian jarri arteko gehieneko epea **3 hilabetekoa** izango da.

Halaber, protokoloaren aplikaziorako ez da denbora-mugarik ezarriko gertakariak noiz gertatu ziren datarekiko.

PROTOKOLOA AKTIBATU AURREKO FASEAK

1. Kasuaren berri izatea

Informazioa zuzenean jaso ahal izango da erasoja jasan duen pertsonarengandik, hirugarren batengandik edo EH Bilduko edozein organoren bidez, aurrez aurre, telefonoz edo idatziz. Horretarako, postontzi elektronikoa jarriko da, eta hari buruzko informazioa emateko ereduja ezarriko da intraneten. Jasotzen duen organoak idatziz jakinaraziko dio Barne Antolaketako Zuzendaritzari.

2. Kasuaren aurretiko balorazioa

Barne Antolaketako Zuzendaritzak lehen balorazioa egingo du, protokolo honen esparruko kasu bat, indarkeria matxista, ote den ala ez baieztatzeko. Erantzuna ezezkoka bada, informazioa eman duen pertsonarekin harremanetan jarriko da arrazoiak azaltzeko eta, hala badagokio, zein organotara jo dezakeen gomendatzeko. Indarkeria matxistaren kasutzat hartzen bada, Barne Antolaketako Zuzendaritzak **protokoloa aktibatuko** du.

PROTOKOLOAREN AKTIBAZIO-FASEAK

1. Organo arduradunak aktibatzea

Barne Antolaketako Zuzendaritzak **Kudeaketa Taldea** aktibatuko du eta, kasu bakoitzaren arabera, **Inplementazio Taldea** eratuko du, biak bere koordinaziopean betiere. Horietako bakoitzak jarraian zehazten den funtzioa du.

2. Akonpainamendua erasoja jasan duen pertsonari

Kudeaketa Taldeak pertsona egokienak identifikatuko ditu, kasuaren arabera, erasoja jasan duenari akonpainatzeko. Bi lagun izango dira beti, eta Inplementazio Taldekoak, Adituen Sarekoak edo bietakoak izan daitezke. Nolanahi ere, indarkeria matxistari buruzko prestakuntza izan beharko dute.

Eraso jasan duenari akonpainatzea, haren eskubideak erdigunean jarrita, protokolo honen zeharkako alderdietako bat da, eta prozesu osoan zehar egin behar da, protokoloaren aktibaziotik itxiera arte eta konfidentzialtasun-, agentzia- eta erreparazio-printzipioak bermatuz. Gertatutakoaren berri izan denetik ahalik eta epe laburrenean, eraso jasan duen pertsonarekin harremanetan jarri beharko dute, hari entzuteko, prozesuaren ezaugarriei buruzko informazioa emateko eta, dituen beharren arabera, behar den laguntza eskaintzeko. Beraz, eraso jasan duen pertsonak hala nahi badu, akonpainamenduak etengabeko kontaktuan egotea esan nahi du, neurri zehatzen aplikazioak irauten duen denbora baino harago.

3. Kasuaren balorazioa

Kudeaketa Taldeak, behin protokoloa aktibatu ondoren, balorazioa egingo du, betiere kontuan hartuta zein printzipio eta bermek gidatu behar duten bere jardura, zeharkakotasunez, bereziki konfidentzialtasuna eta ez birbiktimizatzea, eta akonpainamendua.

3.1. Informazioa biltzea

Alde batetik, eraso jasan duen pertsonarekin harremanetan jarri diren pertsonak harekin bilduko dira behar beste aldiz protokoloaren edukien berri emateko, gertatutakoaren kontakizuna idatziz osatzeko eta prozesuan parte hartzeko idatzizko baimena jasotzeko, betiere ahalik eta epe laburrenean.

Ondoren, **Kudeaketa Taldeak** erabaki beharko du zein pertsona bilduko diren eraso egin duen pertsonarekin. Bi lagun izango dira beti, eta Kudeaketa Taldekoak, Adituen Sarekoak edo bietakoak izan daitezke. Erasoa egin duen pertsonarekin bilduko dira gertaeren eta haien inpaktuaren zein protokoloaren edukiaren berri emateko, eman nahi duen informazioa biltzeko eta prozesuan parte hartzeko idatzizko baimena jasotzeko.

Kudeaketa Taldeak zuzeneko lekukotasunak edo informazio nahikoa, argigarria edo fidagarria ematen duten lekukotasunak baino ez ditu baloratuko. Lortu ezin badira, prozesuak ez jarraitzea proposatuko zaio Barne Antolaketako Zuzendaritzari.

3.2. Kasuaren azterketa

Kudeaketa Taldeak kasuaren **balorazio-txostena** egingo du, eta hartan jasoko dira eraso jasan duen eta egin duenaren pertsonen testigantza eta erasoaren balorazioa, jarraian aurkezten diren elementuen arabera. Kasuaren balorazio-txostenak, beraz, integratuko ditu erasoaren sailkapenaren azterketa zein testuinguruaren elementuen azterketa, eta hori izango da abian jarri beharreko neurriak proposatzeko oinarria.

Erasoen tipologia

Hainbat adierazpen eta forma ditu indarkeria matxistak, bizitzako esparru guztietan. Era berean, intentsitate desberdinekoa izan daiteke. Zuzeneko indarkeria da errazen ezagutzen dena, batez ere indarkeria fisikoa, baina badira beste forma eta adierazpen batzuk ere, askotan batera gertatzen direnak, matrize konplexu bat osatuz, matrize horren helburua beti izanik emakumeak eta disidente sexu-generikoak ordena patriarkalaren pean edukitzea.

Era berean, indarkeria matxista ez da kasu bakanetan gertatzen, gure gizarte-sistemaren egituraren ezarria dago eta hainbat modutan eta mailatan eragiten die pertsonen, sexuaz eta generoaz harago, definitzen gaituzten edo une jakin batean agertzen diren ezaugarriekin (arrazak, adina, egoera sozioekonomikoa, egoera administratiboa, autonomia-maila eta beste) zerikusia duten faktoreen konplexutasunaren arabera.

Gure printzipioei, bermeei eta filosofiari jarraiki, eta ahalik eta kudeaketa egokiena egiteko, beharrezkoa da erasoak tipifikatzea. Jakin badakigu, indarkeria matxistaren errealitate konplexuaren aurrean, hemen planteatzen dena sinplifikazioa dela ezinbestean: horregatik, funtsezkoa da protokolo honetan zuzeneko erantzukizuna duten pertsonen eta egituren prestakuntza feminista izatea, eta behar denean adituen laguntza edukitzea, errealitate horretara behar bezala hurbiltzea bermatuko baitigu ikuspegi feministak.

Hurrengo sailkapenak lagunduko digu askotan naturalizatuak dauden jarrerak eta portaera asko ikusarazten, gure eguneroko bizitzan gerta daitezkeenak, militantziako eta parte-hartze politikoko espazioetan. Protokolo honetan jasotzeak lagun diezaguke horiek ulertzen, desnaturalizatzen eta errepika ez daitezen egin beharreko aldaketei buruz hausnartzeko. Halatan, protokolo honek balioko du, kasuak behar bezala kudeatzeko beharrezko tresna izateaz gain, gure komunitatea kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko ere.

Garrantzitsua da kontuan izatea kasu bakoitza desberdina dela; beraz, gertakariak ahalik eta modu egokienean tipifikatzeko, ezinbestekoa da eraso-mota ez ezik, testuinguruko elementu guztiak ere kontuan hartzea, begirada zabaltzeko eta kasuaren balorazioan sakontzeko.

1. MOTA

Sarritan egunerokoan gertatzen diren portaerak edo jarrerak dira, etengabe ere gertatzen direnak, eta normalean ikusezin bihurtzen dira. Gutxi-asko naturalizatuta daude eta, horregatik, ukatu edo minimizatu egiten dira askotan. Beste faktore batzuen eskutik, hainbat inpaktu eragiten dituzte emakumeengan, bai norbanakoengan bai kolektiboengan, parte hartzeko espazioak toki ez-parekideak, deserosoak, desatseginak, ez-segururak eta, azken batean, ez-libreak bihurtuz.

Besteak beste, jarrerak, portaerak edo jokabideak izan daitezke, eskuarki ahozkoak, hala nola gaitzestea, gutxiestea edo arbuiatzea, *mansplaining*¹ egitea, jarrera paternalistak izatea, hitza kentzea, hitza edo iritzia ez errespetatzea, iruzkin edo adierazpen matxistak egitea (sexualitateari, genero-identitateari, rolei eta estereotipoen, itxura fisikoari, genero-harremanei, indarkeria matxistari berari eta abarri buruz).

2. MOTA

Askatasuna mugatzen duten portaerak eta jokabideak dira, eta ondorioak dituzte autoestimuan, osasun fisikoan eta mentalean, gizartean harremanak izateko gaitasunean, autonomoa izateko gaitasunean, askatasunez mugitzeko gaitasunean eta abarretan. Publikoak zein pribatuak izan daitezke, eta haietako batzuk minimizatu edo naturalizatu egin daitezke.

Besteak beste, jarrera, jokabide edo portaera hauek izan daitezke: iraintzea/oihukatzea, bakartzea/kontrolatzea, apaltzea, xantaia egitea emozionala, etab.

3. MOTA

1. Modu paternalistan gizon batek emakume bati zerbaitei esplikatu nahi izatea, emakumea ezeztatuz edo baliogabetuz.

Pertsonen osotasunaren, segurtasunaren eta askatasunaren aurkako portaerak eta jokabideak dira, eta ondorio fisiko eta psikologiko handiak dituzte, bizitza osoa eta osatua, alderdi guztietan eta askatasunean, izatea galarazten dietenak. Epe luzera ondorioak ere izan ditzakete.

Honako hauek izan daitezke, besteak beste: sexu-jazarpena –zibernetikoa barne –, sexuan/sexu-orientazioan/genero-identitatean oinarritutako jazarpena, eraso fisikoak edo psikologikoak (sexu-erasoak barne), baimenik gabe irudi pertsonalak zabaltzea, sexu-irudiak barne, laneko jazarpena...

4. MOTA

Indarkeria-maila handiko eraso matxistak dira, eta oso eragin larriak dituzte, bai erasoak jasan duen pertsonarengan bai haren inguruan eta komunitatean, eta ondorioak, batzuetan, iraunkorrak eta atzera itzulezinak izaten dira.

Honako hauek izan daitezke, besteak beste: bortxaketak, eraso fisikoak edo psikologikoak, adingabeen aurkako eraso edo abusu sexualak, hilketa matxista.

Testuinguruko elementuak

Eraso matxistek ondorio oso desberdinak izan ditzakete, bai jasaten dituen pertsonarengan, bai komunitatean bertan, zenbait faktoreren arabera. Horregatik, kasu bakoitza desberdina da, nahiz eta portaerak edo jarrerak berdina edo antzekoak izan daitezkeen. Beraz, beharrezkoa da testuinguruan kokatutako azterketa egitea, erasoak behar bezala tipifikatu ahal izateko. Elementu horiek, gainera, lagundu egingo digute indarkeria matxistaren konplexutasuna ulertzen bere askotariko adierazpenetan.

- Botere-posizioak: pertsona batzuk besteen gainetik edo azpitik jartzen dituzten edo jar ditzaketen botere-elementuak dira (daukan aintzatespena-erreferentzialtasuna, proiektzio publikoa, duen kargua, adina, ibilbide militantea...).
- Maiztasuna: erasoak zenbat aldiz gertatu den.
- Erasoaren intentsitatea.
- Denbora: erasoak zenbat denboran gertatu den.
- Arriskua: erasoak jasandako pertsona arriskuan jartzen duten edo jar dezaketen elementuak.
- Inpaktua: inpaktuaren intentsitatea, bai erasoak jasan duen pertsonarengan bai komunitatearengan.

4. Abian jarri beharreko neurriak

Kudeaketa Taldeak, ahalik eta lasterren eta Adituen Sarearekin kontrastatu ondoren, Barne Antolaketako Zuzendaritzari kasuaren balorazio-txostena helaraziko dio, baita neurrien proposamena ere. Neurri horiek berehala abiarazi beharko du **Inplementazio Taldeak** protokolo hau arautzen duten printzipio eta bermeak errespetatze aldera.

Indarkeria matxistaren, gure gizarte-antolamenduaren eta EH Bilduren beraren errealitatea konplexua denez, kasu bakoitza desberdina da, eta hurbilketa desberdina behar du bere elementu espezifikoekin, aintzat hartuta, gertaerak ez ezik, gure komunitatean eta pertsonengan eragina duten gainerako testuinguruko elementuak, aurreko puntuan zehaztu bezala: tipologiari dagokionez, antzeko eraso batek analisi desberdina izango du beti, gertatu den testuinguruaren

arabera, eta, beraz, berariazko neurri batzuk hartuko dira, gertakariei eta haien testuinguruari egokituak.

Gure filosofiaren arabera, edozein neurri-proposamenek kontuan hartu beharko ditu abian jarri beharreko prozesua osatuko duten hiru ardatzak: eraso jasan duen pertsona, eraso egin duen pertsona eta EH Bilduren komunitatea. Horrek ez du esan nahi beti egon behar direnik hirurei zuzendutako neurriak. Kasuaren balorazioak beharrezko egiten duen eta inplikaturako pertsonak aplikazio-eremuan sartzen diren, hau da, bilkideak, kontratatutak edo kargu organikoak edo publikoak diren, horren arabera izango da.

Lehen esan dugun bezala, erreparazioa eta hezkuntza dira protokolo honen filosofia: gure ustez, indarkeria matxistarik gabeko komunitate baterantz aurrera egiteko helburuan sakontzeko, ezinbestekoa da gure praktika eta eraikuntza kulturalen kontzientzia hartzea, sentsibilizatzea eta aldatzea. Hala, eraldaketan oinarritutako hezkuntza- eta erreparazio-neurriak funtsezkoak izango dira edozein proposamenetan, erdigunetik aldenduz neurri zigortzaileak. Ikuspegi horrek protokolo hau gure erakundea eraldatzeko tresna bilakatzen du, ohiko protokoloetan jasotakotik harago joanez.

Horrela, eta protokoloa kolektiboa eraldatzeko tresna erabilgarria izan dadin, uste dugu funtsezkoa eta lehentasunezkoa dela EH Bildu osatzen dugun pertsona guztiok indarkeria matxistari buruzko prestakuntza jasotzea gure Eskola Feministaren baitan. Horregatik kokatu nahi izan ditugu **1. motako erasoak** hauen tipologia azaldu dugunean, hauek ikusarazteko, izendatzeko. Jakin badakigu, askotan naturalizatu edo normalizatu ditugun jokaera hauek, indarkeria matxistaren egiturazko zikloaren parte direla, eta hauei aurre egiteko, hezkuntza, formakuntza eta talde mailako hausnarketak gure jardunaren egunerokotasunean kokatu beharko ditugula, eta ez protokoloa aktibatuz.

Testuinguruaren arabera hurbilketa horri esker, prozesu bakoitza bere konplexutasunean izendatu eta ezaugarritu ahal izango dugu, kasuen irakurketa sinplifikatuak, partzialak edo finkoak gaindituz. Bestalde, kontuan izan behar dugu abian jarri beharreko prozesua bera zer bait bizi eta aldakor gisa ulertu behar dela, tokiko baldintzak, pertsonen erantzunak eta beste edozein aldagai egoeraren irakurketa aldatzen doazen heinean, eta, beraz, dinamikoa eta jarraitua da. Horren ondorioz, garatu beharreko prozesuaren hasierako proposamena ere etengabe aztertu, berrikusi eta egokitu egin behar da, betiere protokolo honen filosofiaren, printzipioen eta bermeen esparruan.

4.1. Erasoa jasan duen pertsonarekin

Kasu guztietan, proposamenak zentzu erreparatzailea izan behar du eraso jasan duen pertsonarekin, horixe baita hasieratik aplikatu behar den protokoloaren printzipioetako bat. Prozesuaren ezaugarritzeak zehaztuko du zer ekintza eta urrats egin behar diren. Nolanahi ere, eraso jasan duen pertsonarekin adostuta egingo dira, eta, beharrezkoa bada, Adituen Sareak parte hartuta definitu ahal izango dira.

Abian jarri beharreko neurriak edo ekintzak honako hauek izan daitezke, besteak beste:

- Erasoa jasan duen pertsona babestea.
- Laguntza feminista ikuspegi erreparatzailearekin: tokiko sare feministetan, ahalduntze-eskoletan, emakumeen etxeetan eta abarretan parte hartzea.
- Laguntza psikologikoa.
- Laguntza juridikoa.

4.2. Komunitatearekin

Protokolo honen erdigunean dago EH Bilduren komunitatea, azken helburua indarkeria matxistarik gabeko erakunde baterantz aurrera egiten laguntzea baita. Indarkeria horien egiturazko arrazoiek denoi eragiten digute, eta beharrezkoa da guztiok inplikatzeko, protokolo hau geure gisa hartzea, eta indarkeria matxistarik gabeko inguruak sortzeko lan egitea. Hori dela eta, edozein proposamenen helburuetako bat izango da sakontzea indarkeria matxistaren kausak eta adierazpenak ondo identifikatzeko eta kontzientzia hartzeko, eta adierazpen horiek emakumeen eta sexu-genero sistemako pertsona disidenteen bizitzetan zein eragin dituzten zehazteko, bai eta EH Bildun duten presentzia aitortzea eta indarkeriarik gabeko kultura politiko eta militantean aurrera egitea ere, betiere ikuspuntu erreparatzaile, ez-biktimizatzaile eta eraldatzailetik begiratuta. Horregatik, lehen esan dugun bezala, baliteke kasu batzuetan, eraso egin duen pertsonari zuzendutako neurriak ez badago ere, gure komunitatean inpaktu zuzena izatea, testuinguruaren gainerako elementuek eragindakoa, eta neurriak abian jartzeko beharra baloratzea.

Abian jarri beharreko neurriak edo ekintzak honako hauek izan daitezke, besteak beste:

- Bilera edo batzar espezifikoak.
- Ekitaldi publikoak, hala nola hitzaldiak edo mahai-inguruak.
- Prestakuntza edo hezkuntza-prozesu erreparatzaile feministak.

Funtsezkoa da EH Bilduren tokiko organoek parte hartzea ekintza horien definizioan, batez ere Inplementazio Taldeko kideek, talde horrek jarriko baitu abian proposamena, eta berrikusi eta egokitu egingo du, behar izanez gero.

4.3. Eraso egin duen pertsonarekin

Emakumeek eta sistemaren disidentee, sexuaren eta generoaren arteko harreman desberdinetan, duten mendeko jarreraren oinarritzen dira indarkeria matxistaren sustraiak, indarkeria hori mantentzeko tresnarik eraginkorrenetako bat baitira, eta gure gizarteko sektore eta esparru guztiei eragiten die, dituen adierazpen desberdinetan. Egiturazko desberdintasun horrek banakako aldaketak eta aldaketa kolektiboak eskatzen ditu. Banakakoak funtsezkoak dira protokolo honen esparruan rola, botere-harremanak, jarrerak eta abar deseraikitzeke prozesuetan aurrera egiteko. Horren harira, eta Adituen Sarearekin hitz eginda, Kudeaketa Taldeak proposatu ahal izango du 2 neurri mota:

4.3.1. Erreparazio- eta heziketa-neurriak

Eraso egin duen pertsona parte hartzeko prest badago, hainbat neurri proposatu ahal izango dira erasoaren sailkapenaren eta testuinguruaren azterketaren arabera:

- Ikuspegi feministako prestakuntza-ekintzak (indarkeria matxistaren jatorriei, kausei, adierazpenei eta formei buruzkoak, maskulinitatei buruzkoak, etab.) 2. motako erasoetarako: prestakuntza puntualak edo prestakuntza-prozesu biziagoak eta luzeagoak izan daitezke, testuinguruaren eta erasoaren azterketaren arabera.
- Ikuspegi feminista duten prozesu terapeutikoak 3. motako erasoetarako: banakako prozesu terapeutikoa beharko da, eta Kudeaketa Taldeak onartu eta gainbegiratu beharko du horien ikuspegia, Adituen Sarearekin kontrastatuta.

Kudeaketa Taldeak, Adituen Sarearekin batera, amaitu ondoren, hezkuntza- edo terapia-neurrien eraginaren balorazio idatzia egin beharko du, eraso egin duen pertsonak jarrerak aldatzeari dagokionez.

4.3.2. Militantzia eteteko neurriak

Erasoa **4. mota**kotzat sailkatzen bada, Barne Antolaketako Zuzendaritzak, Kudeaketa Taldearekin koordinatuta, EH Bildutik kanporatzea proposatuko dio Hegoaldeko Mahai Politikoari, eta erabaki hori gehiengo osoz hartu beharko da. Barne Antolaketako Zuzendaritzak erabaki horren berri emango dio erasoa egin duen pertsonari, idatziz. Hegoaldeko Mahai Politikoak erabakiko du nola jakinaraziko zaion gure komunitateari.

3. motako erasoen kasuan, Barne Antolaketako Zuzendaritzak erasoa egin duen pertsonaren EH Bilduko kide-izaera aldi baterako etengo du eta, aldi berean, azpialar honetako 1. puntuan proposatutako prozesu terapeutikoak martxan jartzea proposatuko du. Nolanahi ere, aldi baterako erabaki horrek ezingo du urtebete baino gehiago iraun. Denbora hori igarotakoan, Kudeaketa Taldeak, Adituen Sarearekin koordinatuta, kasuaren balorazio integrala egingo du berriz ere, betiere hiru ardatzak kontuan hartuta (erasoa jasan duen pertsona, erasoa egin duena eta komunitatea), ikuspegi feminista, erreparatzaile eta eraldatzaile batetik: beharrezkoa balitz, prozesu terapeutikoa luzatuko da, militantzia aldi baterako eteteko neurriarekin batera, harik eta behin betiko balorazioa egin arte; txostenak jasotzen badu bide terapeutikoa amaitu dela eta haren balorazioa positiboa dela, Barne Antolaketako Zuzendaritzak EH Bilduko militantziaren aldi baterako etete-neurria bertan behera utziko du eta idatziz jakinaraziko dio erasoa egin duen pertsonari; azkenik, txostenean jasotzen bada bide terapeutikoa agortu dela eta haren balorazioa negatiboa dela, Barne Antolaketako Zuzendaritzak modu justifikatuan Hegoaldeko Mahai Politikoari proposatuko dio EH Bildutik kanporatzea. Erabaki hori gehiengo osoz hartu beharko da. Barne Antolaketako Zuzendaritzak erabaki horren berri emango dio erasoa egin duen pertsonari, idatziz. Hegoaldeko Mahai Politikoak erabakiko du kanporatzea nola jakinaraziko zaion gure komunitateari.

Nolanahi ere, esku hartzeko prozesuaren edozein unetan, egoitza judizialean erasoa egin duen pertsonaren aurkako salaketa jartzen bada, Barne Antolaketako Zuzendaritzak kautelaz automatikoki etengo du militantzia. Prozesu judizialean parte hartzeko jarrera positiboa izanez gero, protokolo honek ezartzen duen esku-hartze prozesuari buruz adierazitako jarraitarekin bat etorriz, aurreko puntuan azaldutako erreparazio- eta heziketa-neurriak hasi edo jarraituko dira, adierazten den moduan. Horien balorazioa, modu justifikatuan, militantziaren kautelazko etendura itzultzeko edo EH Bildutik kanporatzeko proposamenaren oinarria izango da.

5. Prozesua abian jartzea, akonpainamendua eta jarraipena egitea

Prozesua hasten da Barne Antolaketako Zuzendaritzak protokoloa aktibatzen duenean, jasotako informazioa aldeztu aztertu ondoren. Gero, kasuaren balorazioa amaitu ondoren, Kudeaketa Taldeak abiatu beharreko neurri hezitzaile eta erreparatzaileak jasoko dituen hasierako proposamena bidaliko dio Inplementazio Taldeari. Halaber, militantzia eteteko neurrien proposamena helaraziko dio, hala badagokio, Barne Antolaketako Zuzendaritzari. Edozein neurri lehenbailehen jarri beharko da martxan, gehienez ere 3 hilabeteko epean, EH Bilduk kasuari buruzko informazioa jasotzen duenetik, betiere ekintza bakoitzak behar dituen denborak eta sekuentzia errespetatuz, gure filosofia eta printzipioak errespetatzen direla bermatzeko. Era berean, atal honen hasieran adierazi dugun bezala, hasierako proposamenaren aplikazioa etengabe baloratu eta egokitu egin beharko da eragina izan dezaketen elementu berrien arabera, batez ere, erasoa jasan duen pertsonari eta komunitateari zuzendutako neurriei dagokienez.

Nolanahi ere, EH Bilduren egitura eta organo guztiek beharrezkoak diren giza baliabideak, baliabide teknikoak edo bestelakoak jarri beharko dituzte, aurreikusitako ekintza guztiak abian jartzeko eta haien jarraipena egiteko. Era berean, Adituen Sarearen laguntza ere izango da, behar izanez gero.

6. Prozesuaren amaiera

Aurreikusitako ekintza guztiak abian jarri ondoren eta prozesuaren hasieran ezarritako helburua betetzat jo denean, **Kudeaketa Taldeak**, Inplementazio Taldearekin koordinatuta, **azken txostena** egingo du prozesuaren garapenari, abiarazteari, jarraipenari eta berrikuspenari buruz, bai eta egituren eta arduradunen parte-hartzeari buruz ere, eta, azkenik, gomendioak emango ditu. Txosten hori Barne Antolaketako Zuzendaritzari bidaliko zaio, eta hark artxibatu egingo du, prozesua amaitutzat emanez.

3. Prebentzio- neurriak

Prebentzio-neurrien helburua

Helburua da indarkeria matxistarik gabeko erakunde bat izateko bidean aurrera egiten laguntzea. Horretarako, ikuspegi feministatik begiratuta landu behar dira prebentzio-neurriak, indarkeriaren egiturazko kausak ezagutzea eta arazo kolektibo gisa jorratzeko beharra barne hartuta. Protokolo honetatik harago doan estrategia feministaren parte dira, eta helburua da informazioa ematea, sentsibilizatzeari, gaitzei eta prestatzei, EH Bildu osatzen dugun komunitateak indarkeria matxistaren arrazoiak eta adierazpen ugariak ezagutu eta uler ditzagun, protokolo hori geure egin dezagun eta aurrera egin dezagun, komunitate gisa eta banaka, indarkeria desagertzeko bidean.

Informazio- eta dibulgazio-ekintzak

Protokoloa gure webgunean eta intraneten egongo da eskuragarri, eta, indarrean jartzen denean, liberatutako pertsona guztiei, kargudunei eta militanteei bidaliko zaie. Era berean, EH Bildu erakundean sartzen diren pertsona guztiei eman- go zaie, gainerako dokumentuekin batera. Postontzi elektronikoa jarriko da protokoloari buruzko edozein informazio- -kontsultari erantzuteko.

Indarrean jarri ondoren, gutxienez bi aurkezpen-saio egingo dira herrialde bakoitzeko, eta saio gehiago ere egin ahal izango dira Barne Antolaketako Zuzendaritzari eskaera eginez gero. Etorbizunean dokumentu honetan funtsezko alda- ketak egingo balira, aurkezpen-saioak egin ahal izango dira berriro ere.

Prebentzio- eta sentsibilizazio-ekintzak

Sentsibilizazioa ezinbesteko abiapuntua da indarkeria matxistaren esparrua ulertzeko, prebentzioaren funtsezko alder- dia baita. Nahiz eta EH Bilduren komunitate osoak bere egin behar duen egiturazko errealitate hori, erantzukizun-mai- lak aldakorrek dira, eta, horregatik, ekintza bereziak ezarri behar dira.

Ekintza horietako batzuk, zehatzenak, jaso dira protokolo honetan. Beste batzuk, berriz, EH Bilduren Prestakuntza Plan Integrala edo protokolo honekin lotura estua duen Plan Feministaren barnean egongo dira. Hala Plan Feministari nola Prestakuntza Plan Integralari etengabeko jarraipena eta ebaluazioa egingo zaie, eta, horri esker, indarkeria matxistan ere identifikatu diren beharretara egokituko dira prestakuntza horiek. Horretarako, oso lagungarriak izango dira proto- kolo honen aplikazioaren jarraipena eta ebaluazioa.

Halaber, protokolo hau behar bezala aplikatzeko, beharrezkoa da prestakuntza-ekintza espezifikoak biltzea kudeaketan parte-hartze aktiboa izango duten pertsonentzako. Horrela, Kudeaketa Taldean parte hartzeko aukeratutako organo bakoitzeko pertsonak prestakuntza egokia jasoko dute eginkizun hori aurrera eramateko, aditu feministen eskutik. Funtsezkoa izango da Barne Antolaketako Zuzendaritzaren prestakuntza, kasuen kudeaketa koordinatzeaz arduratuko baita.

Prestakuntzak behar adina aldiz errepikatuko dira, EH Bilduren antolaketan edo egituran gerta daitezkeen aldaketen eta dokumentu honetan izan daitezkeen aldaketen arabera.

4. Jarraipena eta ebaluazioa

Jarraipena

Kasu bakoitzaren amaierako txostenetik abiatuta, Barne Antolaketako Zuzendaritzak urteko memoria aurkeztuko dio Hegoaldeko Mahai Politikoari. Txosten horrek honako informazio hau jaso beharko du gutxienez: kasu-kopurua, abian jarritako prozesuen balorazioa, aplikazioaren balorazioa eta jarraipena, iradokizunak eta gomendioak barne.

Ebaluazioa

Bi urtean behin, protokoloaren aplikazioaren kanpo-ebaluazioa egingo da, Barne Antolaketako Zuzendaritzaren koordinaziopean, eta Hegoaldeko Mahai Politikoari eta EH Bilduren Batzar Nagusiari aurkeztuko zaie. Ikuspegi feminista eta parte-hartzailea izan beharko du, protokoloa hobetzeko balio izateaz gain, EH Bildu indarkeria matxistarik gabeko erakunde bihurtzeko tresna izan dadin. Ebaluazio horren arabera, eta beharrezkoa izanez gero, protokoloa berrikusi ahal izango da.

5. Protokoloaren indarraldia

Protokolo honek indarraldi mugagabea izango du, eta EH Bilduren Batzar Nagusiak, Hegoaldeko Mahai Politikoak proposatuta, onartzen dituen aldaketa guztiak jasoko ditu, jarraipen- eta ebaluazio-prozesuen arabera.

6. Onartzea eta indarrean jartzea

Hegoaldeko Mahai Politikoak protokolo hau Batzar Nagusiari aurkeztuko dio, onar dezan, eta une horretan sartuko da indarrean.

ehbildu